

Oroimentsua



ARITZ GALARRAGA

Ez dut gogoan noiz eta non irakurri nuen estreinakoz Jorge Luis Borges-en *Funes el memorioso* ipuina. Bi hipotesi otutzen zaizkit gertakizun horren aurrean: aurretik ez irakurri izana batetik; irakurri izana eta ez gogoratzea bestetik. Biak zaizkit erabat gertagarri. Lehena balitz, literatura kanonikoan ditudan hutsuneak konfirmatuko lituzke. Bigarrenaren kasuan, nire memoria txarra. Baina hara zer plazer eskaini berri didaten gabezia horiek: estreinako aldia balitz bezala irakurri dut, Juan Garzia Garmendiaren bertsioan, Funes oroimentsuaren istorioa.

Ireneo Funes, beraz, elbarri, oharkatik mugitu ezin, Plinio zaharraren *Naturalis historia*-ren liburuki bat iritsi zaio. Eta handik gutxira zazpigarren liburuko hogeita laugarren kapituluko lehen paragrafoa ari da buruz errezitatzen. Kapitulu horren gaia da, hain justu, oroimena. Izan ere, zalditik erori zenetik, oharren-oroimenak hutsik ere gabeak ditu: "Oroitzapen gehiago dut nik bakarrik, mundua mundu denetik gizabanako guztiek inoiz izan dituzketenak baino". Kontrara, ez da, ordea, beharbada, pentsatzeko oso gai. Pentsatzea diferentziak ahaztea baita, orokorrera jotzea, abstrakziora. Eta Funesen mundu mukurrutuan ez da xehetasunik baizik, xehetasun ia bereiztezinak.

Andoni Egañarena da itauna, ahaztuta ez, harrapatu gabe neukan zutabe batean: "Egingo nuke gogoan duela noiz eta non irakurri zuen estreinakoz Jorge Luis Borges-en *Funes el memorioso* ipuina". Estreinako aldia balitz bezala irakurri uste izan dudan honetan, baike, gogora etorri zait, irakurritu neukan, segur aski karrerako ikasgaireren batean. Baina hori baino garrantzitsuago, Egañaren beste hau: "Eta memoria da, batik bat, sormenaren iturri. Inork ez du ezdeusetik sortzen. Gogoan duguna nahieran moldatuz sortzen dugu guztiok". Zalditik erori zen beste batek, Montaignek: "Oroimen naturalik ezean, paperezko bat egiten dut". Zutabe hauen bitartez neronek, adibidez. ●



Motzean

EUSKARA. "Ez dugu zuen baimenik eskatuko eskubide berriak lortzeko". Determinazio horrekin Baionako Bernat Etxepare lizeoko berrogei ikasle inguruk euskaraz erantzun du Baxoko filosofiako azterketa, jakin arren frantsesez ez egiteagatik ez direla zuzen-duk izango.

KUTSADURA. Iberdrolaren filiala den Van Oord enpresaren Aoelus ontziak 16 kilometro luze eta 2,8 kilometro zabal dituen hidrokarburu isuria eragin du Bretainiako Saint Briec badian. 100 litroko jariora izan du. Instalazio eoliko bat eraikitzeko indusketa lanetan dabil itsasontzia.

POLIZIA. Petronorren greban dauden langileen aurka oldartu zen Ertzaintza ekainaren 15ean. Muskizko findegiaren aurrean piketea egiten ari ziren langileak. Bi egunera, lankideei elkartasuna adieraztera Amurrioko epaitegira hurbilduriko Tubacexeko grebalariei kontra egin zuen Ertzaintzak.

EPAITEGIAK. Maiatzaren 7an, prekaritatea salatzeke ehunka gazte mobilizatu zen Hego Euskal Herriko hiriburuetan, Ernaik deituta. Ertzaintzak Gasteizko eta Bilboko manifestazioetan gogor kargatu zuen. Orain, mobilizazio horietan parte hartzeagatik zortzi lagun auziperatu dituzte.